

Zenarruza-ko Kolejiata (1380) eta Bolibar-en Museoa

Deia, 1983-07-23.

"KOLEJIATA", berez *eliza* da; eliz berezia, artzapezpiku edo gotzaiaren aulki propioa izatera irixten ez bada ere, abate eta kalonje sekularrez osatzen dena, eta elizkizunak katedraletako tankera berean ospatzeko maila duen eliza.

Honelako eliz berezia dugu Zenarruzan, berez *Zearrotza*, eta herriak *Ziurtza* ahoskatzen duen lekuan 1380an eraikia.

Egun hauetan, *Eusko Jaurlaritzak* Simon Bolibar Caracasen jaio zela bigarren mendeurrenaren ospakizunerako egiten ari den lan batzu direla eta, aipatu da Zenarrutza. Zergatik? Simon Bolibarren arbasoak *La Puebla de Bolibar* deritzan lekutik dator, eta La Puebla eta Zenarrutza Udal batean daude, Markinakoa.

Baina bada beste zerbaitegatik ere: Orain 600 urteko harribide bat, esango den bezala.

Euskal Herriko Bolibarzale Baskunaren eraginez, Eusko Jaurlaritzak bene-benetan hartu duen ekinen aipagarriak La Puebla de Bolibarren historia eta arte aldetik interesgarri diren lan ederrak egin ditu, aipagarri diren Bizkaiko Diputazio Forala eta Markinako udalaren lankidetasunean. Hara garrantzi handiena dutenak: 1) *La Puebla plazan*, Bolibarri eskeini zitzaion horoitzgailua garbitu eta berriztatu dute, eta hor agortua zirudien iturria berritu eta lanean jarri; probalekuan zeuden eserlekuko mailak hobetu dira. 2) *Done Tomas Apostuluaren elizatzooan* (X.garren gizaldian Bolibarren arbasoak fundatua, 1600tik aurrera handiagotua) eta *Udaletxean* egin dira lanak: Lehenengoaren eliz ataria eta bigarrenaren arkupea arretaz hobetu. 3) *La Pueblatik Ziurtzako Kolegiataraino dijoan bidean* ari dira oraindik arreta handiko lanetan.

Honek merezi du aipamen berezia.

Kolejiata eraiki zenean (sei mende inguru) bide hori harbide ederra zen, eta harriko gurutza ederrez hornitutako Gurutz bidea ere bai. Mende honen hasieran errepide berria egin zenean, harbidea galdu egin zen sasi tartean. Lasagabaster kontseilariak eta Galarraga arkitektoak gizonak garbiketara jarri zituzten bezain laster izan zuten susmoa, eta harbide osoa agertu da! orain, falta ziren gurutze berriak egin eta sei mende dela egin zen lana berritua izango dugu Bolibartarren sorlekua ikustera joango garenentzat.

Honetarako deigarri bezala. Eusko Jaurlaritzak askatzailearen asabena izan zen "La Rementeria" izeneko hondamenean zegoen etxea erosi du eta barritzearen lanak aurrera doaz, eta hemen joango da Bolibar askatzailearen museoa.

Garaikoetxea lehendakariak esan duen bezala. "Amerikan ernatu zen sustraia jaio zeneko tokiko museoa, elkartzeko tokia, Amerika eta Europaren bateango tokia da".